

FAKTURAK

Faktura **ondasunak entregatu izanaren edo zerbitzuak eman izanaren egiaztagiria da.**

Faktura egiteko betebeharra:

Enpresaburuek eta profesionalak **faktura eta horren kopia egin beharko dute** beren jarduera garatzeko egiten dituzten **ondasun-entregengatik eta zerbitzu-prestazioengatik.**

Txikizkako salmentetan, faktura sinplifikatua eta kopia eginez bete ahal izango da faktura egiteko betebeharra, zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ez denean, BEZa barne. Ezin izango da faktura sinplifikaturik egin urruneko salmentengatik edo erkidego barruko ondasun-emateengatik.

Nolanahi ere, faktura eta horren kopia egiteko betebeharra ezartzen da:

- Hartzaileak tributu-izaerako edozein eskubide egikaritzeko eskatzen duenean.
- Instalazioa edo muntaia duten ondasun-emateetan.
- Urrutiko salmentetan.
- Hartzailea enpresaburua edo profesional gisa jarduten duen profesionala denan.
- Hartzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten ez duen persona juridikoa denean.
- Hartzailea administrazio publiko bat denean.

Fakturak eta fakturak sinplifikatuak egiteko eta bidaltzeko epea:

Fakturak eragiketa egiten den unean jaulki eta igorri behar dira. Hala ere, eragiketaren hartzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen enpresaburu edo profesional bat denean, fakturak BEZaren sortzapena gertatu eta hurrengo hilaren 16a baino lehen jaulki eta igorri behar dira.

Fakturen nahitaezko gutxienero edukia:

- Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Zenbaki bakoitza korrelatiboa izango da.
- Emate-data.
- Eragiketaren edo, hala badagokio, ordainketa aurreratuaren data, baldin eta bidalketarena ez bada.
- Igorlearen eta hartzailearen IFZ, izen-abizenak, sozietatearen izena eta helbidea.
- Eragiketen deskribapena: emandako ondasun-mota edo emandako zerbitzuak, zergarik gabeko unitateko prezioak, deskontuak eta beherapenak identifikatzea.
- Aplikatutako zerga-tasa. Zerga-tasa desberdinak dituzten eragiketen kasuan, bakoitzari dagokion zerga-oinarria zehaztu behar da.
- Jasanarazitako zerga-kuota, bereiz kontsignatu beharrekoa, hala badagokio.
- Ordaindu beharreko zenbatekoa, guztira.

Faktura sinplifikatuaren nahitaezko gutxienero edukia:

- Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Zenbakia korrelatiboa izango da.
- Emate-data.
- Eragiketaren edo, hala badagokio, ordainketa aurreratuaren data, baldin eta bidalketarena ez bada.
- IFZ eta jaulkitzailearen izen-abizenak, izena edo sozietatearen izena.
- Emandako ondasunen edo emandako zerbitzuen identifikazioa.
- Aplikatutako zerga-tasa eta, aukeran, baita BEZa ere. Hainbat zerga-tasari lotutako eragiketen kasuan, bakoitzari dagokion zerga-oinarria zehaztu behar da.
- Ordaindu beharreko zenbatekoa, guztira.
- Hartzailea enpresaburua edo profesionala bada eta hala eskatzen badu edo, hala ez bada, tributu-izaerako edozein eskubide egikaritzeko hala eskatzen badu, jasotzailearen IFZ, izen-abizenak eta helbidea ere jasoko dira, bai eta bereizita kontsignatu behar den tributu-kuota ere.

TicketBAI:

Hiru foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren proiektu komuna da, eta bere helburu nagusia betebeharrak legal eta tekniko batzuk ezartzea da. Horrek esan nahi du jardura ekonomikoa egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek fakturazioa egin behar dutela.

Ekintza horren bidez, hainbat betebeharrak legal eta tekniko ezartzen dira, diru-sarrerak kontrolatzeko eta zerga-administrazioak zerga-aitorpenen zirriborroak egitearekin dituen betebeharrak formalak murrizteko.

Araudia:

[Decreto Foral 18/2013, Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación](#)

[Decreto Foral 2/2022, Modificación del Decreto Foral 18/2013](#)

[Normativa TicketBAI](#)